



2008ko apirilaren 14ko Ebazpena, Hezkuntza Sailburuordearena, Diseinuko goi-mailako ikasketetara sartzeko probarako deia egin, 2008 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak eman, eta 2008/2009 ikasturterako onartzeko prozedura zehazten duena.

Maiatzaren 3ko 2/2007 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak, 57. artikuluan, goi-mailako ikasketatzat jo ditu Diseinuko irakaskuntzak arte plastiko eta diseinuko arloan, eta Diseinuaren titulua Unibertsitateko Diplomaren edo Maila bereko tituluaren baliokidea dela finkatu du, ondorio guztietarako. Halaber, ikasketa hauetara sartzeko, ikasleak Batxiler-titulua, edo horren baliokideren bat izan beharko duela ezartzen du eta baita irakaskuntza hauek aprobetxamenduz egiteko behar diren heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak dituela egiaztatu sartzeko proba baten bidez.

2/2006 Lege Organikoaren hamaikagarren xedapen iragankorrek ezartzen du Diseinuko goi-mailako irakaspenak garatuko lituzketen erregelamenduzko xedapenik argitaratzen ez den bitartean orain arteko maila bereko arauak aplikatuko direla.

Irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak Diseinuko goi-mailako ikasketak, sartzeko proba eta curriculumaren funtsezko alderdiak ezarri ditu. Gainera, sartzeko proba horretatik salbuesteko eta ikasleak onartzeko baldintzak zehazten dira.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Helburua eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honek Diseinuko goi-mailako ikasketetara sartzeko urteroko proba deitu eta arautzea ditu helburu, baita ikasleak 2008/2009 ikasturtean onartzeko irizpideak zehaztea ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.

1. Ikasketa hauetara sartzeko probak irakaskuntza hauek aprobetxamenduz egiteko behar diren heldutasuna, ezagutzak eta gaitasuna baloratzea du helburu.

2. Proba hau gainditzeak aukera emango du irakaskuntza hauek ematen diren estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere dauden ikaspostuak kontuan hartuta.

Hirugarrena.- Hartzaileak.

1.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak.

Batxiler-titulua edo baliokideren bat duen ikasleak baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako sarbide-proba eginez sartu ahal izango dira Diseinuko goi-mailako ikasketetara.

2.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

Ikasketa hauek egin nahi dituzten eta aurreko ataleko baldintza akademikoa ez duten ikasleak ere sartu ahal izango dira, hogeita bost urtetik gorakoak baldin badira eta baldintza akademikorik gabeko ikasleentzako proba gainditzen baldin badute.



3.- Baldintza akademikoak dituzten eta sartzeko proba egitetik salbuetsita dauden ikasleak.

Ondorengo tituluetakoren bat dutenak zuzenean eta sartzeko proba egin gabe sartu ahal izango dira ikasketa hauetara, salbuetsita geratzea aldeztu aurretik eskatu eta behar diren agiriekin sartzeko probaren helburua betetzen dutela egiaztatzen ondoren.

- Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak horretarako ezarritako baldintzen arabera, Arte Plastiko eta Diseinuko goi-teknikari titulu jakinen bat dutenak, eta kasuaren arabera, antzeko edukiak dituzten irakasgaien baliokidetasuna onartu zaienak, edota Ministerioak lan- edo lanbide-praktikari emandako aitortza dutenak.

- Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak horretarako ezarritako erregulazioaren arabera, Berariazko Lanbide Heziketako goi-teknikari titulu jakin batzuk, edo baliokideak, dituztenak.

Laugarrena.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako sartzeko probaren edukia eta balorazioak.

Batxiler-titulua edo baliokideren bat duen ikasleak sartzeko proba gainditu beharko du.

Sartzeko proba horrek bi ariketa izango ditu:

- *Lehen ariketa*, aurreko hezkuntza mailako ondorengo irakasgai buruzkoa: Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Historia, Matematika, Fisika eta Kimika eta Atzerriko Hizkuntza (frantsesa edo ingelesa).
 - Izangai bakoitzak irakasgai horietako hiru aukeratuko ditu izena emateko orduan, eta galdera bat idatziz azalduko du, aukeratutako irakasgai bakoitzetik proposatutako lau galderen artean aukeratua.
 - Berrogei minutu emango dira, gehienez, irakasgai bakoitzari erantzuteko.
 - Lehen ariketa honetan ondorengo alderdiak baloratuko dira: aurreko hezkuntza-mailako ezagutzak, heldutasun maila kontzeptuen ulermenari begira, hizkuntzaren erabilera, aztertze eta sintesia egiteko gaitasuna eta aztertutako gaiak beste irakasgai baliokideetan behar bezala integratzea.
- *Bigarren ariketak* bi atal izango ditu:
 - a) Lehen atalak ondorengo zatiak izango ditu: hiru dimentsioko eredu bat arte-marraketari dagozkion teknikak eta hizkerak aplikatuz irudikatzea, eta eredu hori edo beste eredu desberdin bat irudikapen teknikoko hizkerari dagokien sistema baten bidez irudikatzea.
 - Hiru ordu emango dira, gehienez, ariketa egiteko.
 - Ondorengo alderdiak baloratuko dira: irudikapenaren leialtasun artistiko eta tekniko, sormen-gaitasunak, trebetasunak, ariketa egiteko erakutsitako arte-sentsibilitatea, ezagutzak, ulermen tekniko, problemak sortu eta konpontzeko gaitasuna, lanaren akaberaren kalitatea eta zehaztasuna eta erabilitako teknikak behar bezala erabili izana.
 - b) Bigarren atala konposizio-ariketa bat egitea izango da, kolorez eta teknika librean, proposatutako ereduaren interpretazio librean oinarrituz.
 - Ordubete emango da, gehienez.
 - Ondorengo alderdiak baloratuko dira: sormen-gaitasunak, trebetasunak, irudimena, ariketa egitean erakutsitako arte-sentsibilitatea, ezagutzak, konposizio-arazoak sortu eta konpontzeko gaitasuna, kalitate estetiko, lanaren akaberaren zehaztasuna eta erabilitako teknikak eta arte-prozedurak behar bezala aukeratu eta erabili izana.



Bosgarrena.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako sarbide-probaren edukia eta balorazioak.

Batxiler-titulua edo baliokideren bat ez duten hogeita bost urtetik gorakoak ikasketa horietara sartu ahal izango dira, dagokion sarbide-proba gaindituz.

Sarbide-proba honek bi zati izango ditu:

Lehen zatia: zehazten diren ariketen bidez, ikasleak aurreko hezkuntza-etapako ezagutzak dituela erakutsi beharko du.

- Lehen ariketan, dituen interpretazio- eta analisi-gaitasunak frogatu beharko ditu, orobat giza- edo gizarte-gai bati buruzko ezagupenak. Horretarako, testu baten laburpena eta iruzkin kritikoa egingo ditu (testuarekin batera irudiak, grafikoak eta ilustrazioak jarri daitezke).
- Bigarren ariketan, izaera zientifiko-teknologikoko testua proposatuko zaio (grafikoekin eta taulekin batera joan daiteke), eta horri buruzko galderei erantzun beharko die, bere ezagutzak eta iritzi pertsonalak gaineratuz.
- 3 ordu emango dira, gehienez, ariketa egiteko.
- Honako irizpide hauek erabiliko dira balorazioa egiteko: 1) Analisi-gaitasuna, 2) Gaien ezagutza, 3) Hizkuntza eta berariazko hiztegia adieraztea eta menderatzea.

- Bigarren zatia: baldintza akademikoak betetzen dituztenentzat azaldu diren bi ariketak egin beharko dira.

Seigarrena.- Sarbide-probaren kalifikazioa.

1.- Baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

a) Lehen ariketa zenbakien bidez kalifikatuko da eta, horretarako, batetik hamarrerako eskala erabiliko da, bi hamarrenekin, eta bost edo bost baino gehiago lortu beharko da ariketa gainditzeko.

b) Halaber, bigarren ariketa zenbakien bidez kalifikatuko da eta, horretarako, batetik hamarrerako eskala erabiliko da, bi hamarrenekin, eta bost edo bost baino gehiago lortu beharko da ariketa gainditzeko.

c) Gainditu diren bi ariketetan eskuratutako kalifikazioen batez besteko ponderatutik aterako da sartzeko probaren azken kalifikazioa, lehen ariketari % 40 eta bigarrenari % 60 emanez. Azken kalifikazio hau zenbakietan adieraziko da eta, horretarako, batetik hamarrerako eskala erabiliko da, bi hamarrenekin.

2.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

a) Lehen zatia:

- Ariketa bakoitzaren kalifikazioa zenbakien bidez adieraziko da, horretarako batetik hamarrerako eskala erabiliz, hamarrenik gabe.
- Zati hau gainditzeko, ariketa guztien batez besteko notak, gutxienez, bost izan beharko du. Zati hau gainditzea, halaber, ezinbestekoa izango da bigarren zatian parte hartu ahal izateko.

b) Bigarren zatia:

Bigarren zati hau kalifikatzeko, baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleen atalean erabilitako irizpide berberen arabera jokatu da.

c) Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako sarbide-probaren kalifikazio globala ateratzeko, proba osatzen duten bi zatietan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.



3.- Ikasleek, bai baldintza akademikoak betetzen dituztenen, bai betetzen ez dituztenen kasuan, lau deialdi izango dituzte sartzeko proba gainditzeko.

4.- Sartzeko proba gainditu ondoren, lortutako kalifikazioa ikaspostua lortzeko nahikoa ez bada, ikasleak ondorengo deialdietan ere egin ahal izango du sartzeko proba, kalifikazio hori hobetzeko asmoz.

Zazpigarrena.- Sartzeko proba ebaluatzeko epaimahaia.

1.- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariak izendatuko du proba ebaluatzeko epaimahaia eta epaimahaiburu batek eta lau mahaikidek osatuko dute. Epaimahaikideak goi-mailako irakaskuntzetako irakasleak izango dira, eta ebaluatu behar den esparruaren ezagutza espezifikoak izango dituzte. Epaimahaiak beste espezialista batzuen aholkularitza eskatu ahal izango du, proban sartzen diren irakasgaietan.

2.- Epaimahaiak idazkari bat izendatuko du epaimahaikideen artean eta ebaluazio-akta bat egin beharko du proba bakoitzeko. Akta horretan sartzeko proba osatzen duen zati bakoitzaren kalifikazioa agertu beharko da, baita azterketa egin dutenen kalifikazio globala ere.

Zortzigarrena.- Probarako izena ematea.

1.- Izena emateko epea.

- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia: maiatzaren 7tik 14ra (biak barne).
- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia: ekainaren 2tik 9ra (biak barne).

2.- Izena emateko tokia.

Ikastetxea: Arte Eskola, Aguraingo taldea, z.g.-Vitoria-Gasteiz.

3.- Diseinuko goi-mailako ikasketetara sartu nahi duen ikasle orok, zuzenean sartzeko aukera dutenek barne, izena emateko eskaera bete beharko dute, I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Eredu hori ikastetxeko Idazkaritzan emango da.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aparteko proba bat deitu ahal izango du irailaren lehen hamabostaldian, bete gabeko tokiak eta betetzeko eskaerak izanez gero.

Bederatzigarrena.- Proba egitea.

1.- Probaren data.

- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia: lehen zatia (bartzertzailea), maiatzaren 22an, 15:00etan; eta bigarren zatia ekainaren 17an, 09:00etan.
- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia: ekainaren 17an, 09:00etan.

2.- Proba egiteko tokia.

- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia:
 - Lehen zatia:
Vitoria-Gasteiz: Arte Eskola, Aguraingo taldea kalea, zk.g.
Bilbao: IES Ibarrekolanda BHI, Arbolagane, 2
Donostia-San Sebastián: IES Usandizaga BHI, Felipe IV.aren Hiribidea, 1
 - Bigarren zatia: Vitoria Gasteizko Arte Eskola



- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak:
Ohiko deialdia: Vitoria-Gasteizko Arte Eskola.

Hamargarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak.

1.- Probak egin diren ikastetxeko iragarki-taulan emango dira argitara behin-behineko eta behin-behineko emaitzak. Jatorrizko aktak eta ariketak Vitoria-Gasteizko Arte Eskolan geldituko dira artxibatuta, indarreko legeriaren arabera.

2.- Ikasleak 48 orduko epea izango du probaren kalifikazioari erreklamazioa aurkezteko, behin-behineko emaitzak argitara ematen direnetik aurrera. Erreklamazio hau epaimahaiburuari bidaliko zaio, Arte Eskolako Idazkaritzan emango den ereduaren arabera.

Hamaikagarrena.- Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du Arte Eskolan, II. eranskineko ereduaren arabera. Ezin izango da inoiz ere proben zati bat gainditu izanaren ziurtagiririk eman.

Hamabigarrena.- Ikasleak ikastetxe publikoetan onartzea.

1.- Ikastetxe publikoak ondorengo ehunekoak erreserbatuko ditu ikasketa hauetara sartzeko bide bakoitzerako, dituen ikaspostuak aztertu ondoren:

- a) Ikaspostuen ehuneko 60 Batxiler-tituluaren edo baliokideren baten bidez sartzen diren ikasleentzat.
- b) Ikaspostuen ehuneko 20 Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-mailako Teknikariaren tituluaren, edo baliokideren baten bidez zuzenean sartzen direnentzat. Betetzen ez diren ikaspostuek zehaztutako gainontzeko kupoak handituko dituzte.
- c) Ikaspostuen ehuneko 5, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak zehaztuko duen Berariazko Lanbide Heziketako goi-teknikari titulu edo baliokidea izanik zuzenean sartzen direnentzat.
- d) Ikaspostuen ehuneko 5, Ingeniari, Arkitekto edo Arte Ederretako tituluak izanik zuzenean sartzen direnentzat.
- e) Ikaspostuen ehuneko 10 Batxiler-titulurik edo horren baliokiderik gabe sartzen diren 25 urtetik gorako ikasleentzat.

2.- Sartzeko proba gainditzen duten izangaiei –hala baldintza akademikoak betetzen dituztenei, nola betetzen ez dituztenei— ikaspostuak esleitzeko, proban lortutako kalifikazio globalari begiratu zaio. Ondorio horietarako, proba hezkuntza-eskaintza egiten den ikasturtean eta ikasketak egin behar dituzten ikastetxean gainditu dituztenei emango zaizkie lehenik ikaspostuak.

3.- Egoera horietarako zehaztutako erreserba-ehunekoetatik ikaspostu hutsak izanez gero, ondorengo lehentasun-ordenaren arabera emango dira:

1. – Sartzeko proba irakaskuntzak egin nahi dituzten ikastetxean eta aurreko deialdietan gainditu dituzten ikasleak.
2. – Sartzeko proba beste ikastetxe batean eta deialdiaren ikasturtean gainditu duten ikasleak.
3. – Sartzeko proba beste ikastetxe batean eta aurreko deialdietan gainditu duten ikasleak.

4.- Ikasleak berdintasun-egoeran badaude ikaspostua emateko orduan, ondorengo irizpideen arabera jokatu da:

- a) Batxiler-tituluaz izateagatik sartzen denean, Batxilergoko espedientearen batez besteko notarik onenaren edo Batxilergo Bateratu Balioanitzeko hirugarren kurtsoko eta Unibertsitatara Bideratzeko Ikasturteko kalifikazioen bidez.



- b) Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-mailako Teknikariaren tituluaren bidez sartzen denean, azken kalifikaziorik onenaren bidez. Baliokidetzat jo diren tituluaren kasuan, errebalida-azterketaren edo azken proiektuaren kalifikaziorik onenaren bidez.
- c) Berariazko Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikariaren tituluaren bidez sartzen denean, azken kalifikaziorik onenaren bidez. Baliokidetzat jo diren tituluaren kasuan, bigarren mailako lanbide heziketako ikasketa-espedientearen batez besteko notarik onena.
- d) Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probaren bidez sartzen denean, ikasle horientzat egiten den probaren bigarren zatian lortutako kalifikaziorik onenaren bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 14a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Pedro Ochoa Bernales



I. ERANSKINA

DISEINUKO GOI MAILAKO IKASKETETARA
SARTZEKO PROBARAKO ESKABIDEA

IZEN EMATEA ZEIN IKASTETXETAN EGINGO DEN:

IKASTURTEA:

(Ikasleak betetzeko)

IKASLEAREN DATUAK:

Abizenak:

..... Izena:

Jaiotza-data: NAN/DNI:

.....

Helbidea (Kalea,
zk.)

PK/Herria Lurraldea

..... Telefonoa

Proba egiteko tokia: Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz

Proba egiteko hizkuntza:

Gaztelania Euskara
 ESKARIA: DISEINUKO GOI MAILAKO IKASKETETARA SARTZEKO PROBAN, **BALDINTZA AKADEMIKOAK**
BETETZEN dituztenentzakoan, ONAR DEZATELA

 a – Batxiler-titulua

 b – Batxiler-tituluaaren baliokidea ondorio akademikoetarako (Adierazi zein):

 ESKARIA: DISEINUKO GOI MAILAKO IKASKETETARA SARTZEKO PROBAN, **BALDINTZA AKADEMIKOAK**
BETETZEN EZ dituztenentzakoan, ONAR DEZATELA

LEHEN ARIKETAKO IRAKASGAIK (Hiru aukeratu):

 Euskara eta Literatura

 Gaztelania eta Literatura

 Historia

 Matematika

 Físika eta Kimika

 Atzerriko Hizkuntza:

 Frantsesa

 Ingelesa

BESTE AGIRI BATZUK:

Eskatzailearen sinadura:

(Ikastetxeak betetzeko)

Eskabide-zenbakia:

Sarrera-data:

Idazkariak, _____, **hauxe ZIURTATZEN DU:** goian izenpetzen duen ikasleak adierazitako agiriak
Diseinuko goi-mailako ikasketetara sartzeko proba egiteko eskabide honi erantsi zaizkiola.

.....n., 200_(e)koaren a(e)an.

IDAZKARIA

Ikastetxearen zigilua:



II. ERANSKINA/ANEXO II

DISEINUKO GOI-MAILAKO
IKASKETETARA SARTZEKO
PROBEN ZIURTAGIRIACERTIFICACIÓN DE PRUEBAS DE
ACCESO A ESTUDIOS SUPERIORES DE
DISEÑO

Nik,

<.....>
.....>, Euskal Autonomia
Erkidegoan Diseinuko Goi-mailako
Ikasketetara sartzeko Probarako
Epaimahaiko idazkari naizen aldetik,

Don/Doña

<.....>
.....>
como Secretario/a del Tribunal de la Prueba de
acceso a Estudios Superiores de Diseño en la
Comunidad Autónoma del País Vasco

ZIURTATZEN DUT:

Baldintza akademikoak betetzen dituzten
edo betetzen ez dituzten ikasleentzako
200<.....>. urteko sartzeko probaren
ebaluazio-aktan jasota geratzen denez,

CERTIFICO:

Que, según consta en el Acta de Evaluación de la
Prueba de Acceso para alumnos <con o sin>
requisitos académicos correspondiente al año
200<.....>.

<ABIZENAK, IZENA> jaunak/andreak
Don/Doña <APELLIDOS, NOMBRE>
N.A.N./ D.N.I.

sartzeko proba gainditu
<.....>
kalifikazioarekin.

duela,
azken

ha superado la Prueba de Acceso, con la
calificación final de <.....>

ESTUDIOS SUPERIORES DE DISEÑO/DISEINUKO GOI-MAILAKO IKASKETAK

(e)n, 200 (e)ko ren a
En , a de de 200

Idazkariaren sinadura
Firma del Secretario/a